# I ARABAKO FORU ALDUNDIA

## Administrazio Xedapenak

*Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak*

### GIZARTE POLITIKAREN ETA GIZARTE ZERBITZUEN SAILA

**2565**

**24/2008 FORU DEKRETUA, apirilaren 8ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, Arabako Lurralde Historikoan Beregaintasun Pertsonala Sustatzeko eta Mendekotasun Egoeran bizi diren Pertsonei Laguntzeko abenduaren 14ko 39/2006 Legean ezarritako zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoari buruzko araudia onartu da.**

Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutua onartu duen abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoko 9.2.d artikuluan ezarri da euskal botere publikoek, euren eskumenen eremuan, neurriak hartuko dituztela pertsonen eta taldeen askatasuna eta berdintasuna sustatzeko eta hura eragozten duten oztopoak ezabatzeko.

Horren harira, Estatutuko 10. artikuluak xedatzen du gizartegintza gaietan Autonomia Erkidegoak daukala eskumen esklusiboa.

Gizarte Zerbitzuei buruzko urriaren 18ko 5/1996 Legeko 11.3. artikuluak, Gizarte Zerbitzuen Arloko Eginkizunak zehaztu dituen Eusko Jaurlaritzaren uztailaren 30eko 155/2001 Dekretuarekin lotuta, foru aldundien esku jarri du besteren laguntza behar duten pertsonen arreta eta zaintzaren gaineko eskumena. Araudiaren arabera Foru Administrazioak pertsona horientzako zentroak eta zerbitzuak bermatzeko ardura dauka, eta bermatu ere biztanleriaren beharrizanak asetzeko beste. Aurreko guztiak ez du eragozten Autonomia Erkidegoko Erakunde Autonomoen eta Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko Harremanei buruzko Eusko Legebiltzarraren azaroaren 25eko 27/1983 Legean xedatutakoa. Beste alde batetik, 5/1996 Legeko 3.1. artikuluan xedatu da botere publikoak ekimen pribatuaz baliatuko direla gizarte zerbitzuak emateko, modu subsidiarioan.

Geroago, Beregaintasun Pertsonala Sustatzeko eta tasun Egoeran bizi diren Pertsonei Laguntzeko abenduaren 14ko 39/2006 Legean prestazio berriak ezarri dira, eta horietako bat zerbitzuari lotutako prestazioa da. Honen helburua Administrazio Publikoaren menpeko zentro eta zerbitzu publikoetan eta itunduetan hartu ezin diren onuradunen banako arreta programan ezarritako zerbitzuen kostua finantzatzen laguntzea da.

Hala ere, Arabako Lurralde Historikoan prestazio hori emateko Estatuko legea arau bidez garatu behar da, hain zuzen ere prestazioen lege araubideari dagokionez (onuradunen betebeharrak; prestazioa jasotzeko baldintzak; laguntzaren zenbatekoa; prestazioa aldatzea, etetea eta galtzea…). Garapena ez da egin oraindik.

Beste alde batetik, ekainaren 20ko 21/1988 Foru Arauaren bidez Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea (erakunde autonomoa) eratu zen Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Sailari atxikita; gero, Diputatuen Kontseiluaren urtarrilaren 13ko 2/2004 Foru Dekretuak Egitura eta Funtzionamendu Araudia onartu zuen. Erakunde honen helburuak hauexek dira: Arabako Foru Administrazioaren eskumeneko gizarte zerbitzuen inguruko jarduerak antolatzea, kudeatzea, prestatzea eta egitea.

Horiek horrela, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea Arabako Lurralde Historikoko gizarte zerbitzuen sare publikoaren kudeatzailea da eta, beraz, berak dauka Beregaintasun Pertsonala Sustatzeko eta

# DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA I

## Disposiciones Administrativas

*Decretos Forales del Consejo de Diputados*

### DEPARTAMENTO DE POLÍTICA SOCIAL Y SERVICIOS SOCIALES

**2565**

**DECRETO FORAL 24/2008, del Consejo de Diputados de 8 de abril, que aprueba la normativa reguladora de la Prestación Económica Vinculada al Servicio prevista en la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de dependencia, en el Territorio Histórico de Álava.**

La Ley Orgánica 3/1979, de 18 diciembre, por la que se aprueba el Estatuto de Autonomía del País Vasco, declara en el art. 9.2.d que los poderes públicos vascos, en el ámbito de su competencia adoptarán aquellas medidas dirigidas a promover las condiciones y a remover los obstáculos para que la libertad y la igualdad de las personas y de los grupos en que se integra sean efectivas y reales.

En coherencia con ello, el art.10 del Estatuto establece que la Comunidad Autónoma del País Vasco tiene competencia exclusiva, entre otras, en materia de Asistencia social.

El artículo 11.3 de la Ley 5/1996, de 18 de octubre, de Servicios Sociales, puesto en relación con el Decreto del Gobierno Vasco 155/2001, de 30 de julio, de Determinación de Funciones en materia de Servicios Sociales, atribuye a las Diputaciones Forales la competencia relativa a la atención y el cuidado de las personas que tengan la consideración de dependientes. Más concretamente, esta normativa responsabiliza a la Administración Foral de garantizar la existencia de centros y servicios destinados a este colectivo, con capacidad suficiente para responder a las necesidades de la población. Todo ello sin perjuicio de lo dispuesto en la Ley del Parlamento Vasco 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los órganos forales de sus Territorios Históricos. Por otra parte, el artículo 3.1 de la mencionada Ley 5/1996 dispone que los poderes públicos contarán con la iniciativa privada para la prestación de los servicios sociales, a efectos subsidiarios de la iniciativa pública.

Posteriormente, la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de dependencia, ha establecido nuevas prestaciones, entre las cuales se encuentra la vinculada al servicio, cuyo objetivo es contribuir a la financiación del coste de los servicios establecidos en el Programa Individual de Atención de cada persona beneficiaria, cuando no sea posible su atención a través de los centros y servicios públicos y concertados dependientes de la Administración Publica.

Sin embargo, la ejecución de dicha prestación en el Territorio Histórico de Álava exige un desarrollo reglamentario de la Ley estatal, en cuanto se refiere al régimen jurídico de la prestación (requisitos de las personas beneficiarias; condiciones de acceso a la prestación; determinación de la cuantía; modificación, suspensión y extinción de la prestación, etc.) que todavía no se ha producido.

Por otra parte, hay que señalar que mediante la Norma Foral 21/1988, de 20 de junio, se constituyó el organismo autónomo Instituto Foral de Bienestar Social, adscrito al Departamento de Política Social y Servicios Sociales de la Diputación Foral de Álava, y el Decreto Foral 2/2004, del Consejo de Diputados de 13 de enero, aprobó su Reglamento de Estructura y Funcionamiento. Los fines de este organismo son la organización, gestión, prestación y ejecución de las actividades relacionadas con los servicios sociales cuya competencia se encuentra atribuida a la Administración Foral alavesa.

Desde esta perspectiva, el Instituto Foral de Bienestar Social se configura como el organismo gestor de la red pública de servicios sociales que existe en el Territorio Histórico de Álava y, por tanto, es

Mendekotasun Egoeran bizi diren Pertsonei Laguntzeko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak xedatutakoak aplikatzeko eskumena. Ildo honetatik, lege honetako hamabigarren xedapen gehigarrian berariaz aintzatetsi dira Euskal Autonomia Erkidegoko foru aldundien berezitasunak, beregaintasunerako eta mendekotasun egoeran dauden pertsonei laguntzeko sistemako kide diren aldetik.

Azkenik, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketari, Funtzionamenduari eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauko 7. artikuluak eskumena eman dio Diputatuen Kontseiluari foru arauak, autonomia erkidegoetako legeak eta Estatuarenak garatzeko arauak emateko.

Horregatik, Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu eta gero, hauxe

XEDATU DUT:

Lehenengoa. Arabako Lurralde Historikoan Beregaintasun Pertsonala Sustatzeko eta Mendekotasun Egoeran bizi diren Pertsonei Laguntzeko abenduaren 14ko 39/2006 Legean ezarritako zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoari buruzko araudia onestea. Prestazioaren agiria ebazpen honen eranskinean dago. Prestazioaren zenbatekoa hiru milioi eta berrehun mila (3.200.000,00 €) euro izango da, eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen 2008ko aurrekontuko 1.80202.0200.460.00.08 ("Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa") partidaren kargura ordainduko da.

Bigarrena. Foru dekretu hau Diputatuen Kontseiluak onartu eta hurrengo egunean jarriko da indarra.

Hirugarrena. Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu behar da.

**ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAN BEREGAINTASUN PERTSONALA SUSTATZEKO ETA MENDEKOTASUN EGOERAN BIZI DIREN PERTSONEI LAGUNTZEKO ABENDUAREN 14KO 39/2006 LEGEAK EZARRITAKO ZERBITZUARI LOTUTAKO PRESTAZIO EKONOMIKOAREN ARAUDIA**

1. artikulua. Xedea

Foru dekretu honen xedea Arabako Lurralde Historikoan Beregaintasun Pertsonala Sustatzeko eta Mendekotasun Egoeran bizi diren Pertsonei Laguntzeko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak ezarritako zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa arautzea da.

2. artikulua. Definizioa

Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren helburua onuradunen banako arreta programan ezarritako zerbitzuen kostua (eguneko zentroa edo eguneko arreta zentroa eta egoitza arreta iraunkorra) finantzatzen laguntzea da. Prestazio hau Arabako Foru Aldundiaren menpeko zentro eta zerbitzu publikoetan eta itunduetan hartu ezin direnei aitortuko zaie, foru dekretu honetan ezarritako eskakizunak betez gero.

Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa aldizkakoa izango da eta pertsonaren mendekotasunaren graduaren eta mailaren arabera aitortuko da.

Prestazioak xede bat bakarrik eduki dezake: banako arreta programari buruzko administrazio ebazpenak esleitutako zerbitzuaren kostua finantzatzea, 39/2006 Legeko 17.2. artikuluan ezarri den bezala.

3. artikulua. Bateragarritasunak eta bateraezintasunak

1. Foru dekretu honetan araututako prestazio ekonomikoa ezin da bateratu familia giroan zaintzeko prestazio ekonomikoekin (urriaren 26ko 70/2007 Foru Dekretua), ez laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoarekin (otsailaren 12ko 11/2008 Foru Dekretua); hau da, horietako bat jasotzeak besteak ezin jaso izatea dakar.

el organismo competente para aplicar los contenidos de la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las Personas en Situación de Dependencia. En este sentido, la Disposición Adicional Duodécima de esta Ley reconoce expresamente las especificidades de las Diputaciones Forales, en el caso de la Comunidad Autónoma del País Vasco, como entidades territoriales que forman parte del Sistema para la Autonomía y Atención a la Dependencia.

Finalmente, el artículo 7 de la Norma Foral 52/1992, de 18 de diciembre, de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de la Diputación Foral de Álava, atribuye al Consejo de Diputados la competencia para ejercer la potestad reglamentaria, en desarrollo de las Normas Forales, las Leyes de las Comunidades Autónomas y las del Estado.

En su virtud, a propuesta de la Diputada Foral de Política Social y Servicios Sociales, y previa deliberación del Consejo de Diputados en sesión celebrada en el día de hoy,

DISPONGO:

Primero. Aprobar la normativa reguladora de la prestación económica Vinculada al servicio prevista en la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de dependencia, en el Territorio Histórico de Alava, según queda redactado en el documento anexo a esta resolución, con cargo a la partida 1.80202.0200.460.00.08 " Prestación Económica Vinculada al Servicio" por importe de tres millones doscientos mil euros (3.200.000,00 €) del Presupuesto del Instituto Foral de Bienestar Social para 2008.

Segundo. El presente Decreto Foral entrará en vigor al día siguiente de su aprobación por el Consejo de Diputados.

Tercero. Ordenar su publicación en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Alava.

**NORMATIVA REGULADORA DE LA PRESTACIÓN ECONÓMICA VINCULADA AL SERVICIO PREVISTA EN LA LEY 39/2006, DE 14 DE DICIEMBRE, DE PROMOCIÓN DE LA AUTONOMÍA PERSONAL Y ATENCIÓN A LAS PERSONAS EN SITUACIÓN DE DEPENDENCIA, EN EL TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA**

Artículo 1. Objeto

El presente Decreto Foral tiene por objeto la regulación de la prestación económica vinculada al servicio prevista en la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de dependencia, en el ámbito del Territorio Histórico de Alava.

Artículo 2. Definición

La prestación económica vinculada al servicio está destinada a contribuir a la financiación del coste de los servicios de Centros de Día o Atención Diurna y de Atención residencial permanente establecidos en el Programa Individual de Atención de cada persona beneficiaria. Esta prestación se reconocerá cuando cumpliendo los requisitos establecidos en el presente Decreto Foral, no sea posible su atención a través de los centros y servicios públicos y concertados dependientes de la Diputación Foral de Alava.

La prestación económica vinculada al servicio, tendrá carácter periódico y se reconocerá en función del grado y nivel de dependencia.

Esta prestación únicamente podrá destinarse a financiar la adquisición del servicio asignado por la resolución administrativa del programa individual de atención, tal y como prevé el artículo 17.2 de la ley 39/2006.

Artículo 3. Compatibilidades e incompatibilidades.

1. La percepción de la prestación económica regulada por el presente Decreto Foral es incompatible con la percepción de las prestaciones económicas para cuidados en el entorno familiar y con la de asistencia personal, reguladas mediante Decretos Forales 70/2007 de 26 de octubre y 11/2008 de 12 de febrero, de modo que la percepción de una cualquiera de ellas supone la imposibilidad de percibir las otras.

2. Prestazio ekonomiko hau bateragarria da pertsona onuraduna Aldundiaren eskumeneko zerbitzuen baliabideak berresleitzeko programan sartzearekin.

4. artikulua. Administrazio publikoen arteko lankidetza

Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Sailak gizarte zerbitzuen gainean eskumena duten gainontzeko administrazio publikoekin koordinatuta baliatuko ditu bere eskumenak, haiekin lankidetzan jardunez.

5. artikulua. Onuradunak

1. Foru dekretu honetan araututako laguntza ekonomikoen onuradun mendekotasun egoeran dauden pertsonak izan daitezke, baldin eta eskaera aurkeztean ondoren azalduko diren betekizunak betetzen badituzte:

a) Legezko bizilekua Estatuan edukitzea bost urtean, gutxienez; horietako bi eskaera aurkeztu aurreko biak izan behar dira.

Eskakizun hau egiaztatutzat joko da eskatzaileak biztanleen udal erroldaren agiria aurkeztuz gero, baldin eta Estatuan badauka egoitza, eta bertan bizi bada, eta egoiliarra bada.

Eskatzaileak 5 urte baino gutxiago badauzka, eskakizuna haren zaintza daukatenei aplikatuko zaie.

b) Abenduaren 14ko 39/2006 Legean ezarritakoaren arabera mendekotasun gradu eta mailetako bat aitortuta edukitzea.

c) Prestazio eskaera aurkeztean Arabako Lurralde Historikoan erroldatuta egotea.

d) Banako arreta programak prestazioa egokia den ala ez zehaztea.

e) Prestazioaren xede diren arreta zerbitzuen berezko betekizunak betetzea.

f) Publikoa ez den egoitza, etxebizitza komunitario edo eguneko zentro batean, Arabako Lurralde Historikoan egonik jarduteko baimena daukan batean, egoitza zerbitzua, eguneko zerbitzua edo eguneko arreta jasotzen duela frogatzea. Etxebizitza komunitarioek araudi honetako 6. artikuluan ezarritako betekizunak bete behar dituzte.

Norbaiti, aparteko arrazoiengatik, Arabako Lurralde Historikoan plazarik egon ez eta Euskal Autonomia Erkidegoko beste lurralde bateko egoitza bateko zerbitzua jasotzeko prestazio ekonomikoa aitortzen bazaio, gehienez ere urtebetean jasoko du laguntza. Urtebete pasatutakoan prestazioa berrikusiko da, eta orduan, Arabako Lurralde Historikoan plazarik egonez gero, bertara aldatu beharko da. Aldiz, Araban plaza hutsik ez badago, prestazio ekonomikoa beste urtebeterako luzatu ahal izango da.

g) Atzerritik itzultzen direnek laguntza prestazioak eska ditzakete, nahiz eta Estatuko egoiliartasunaren aldiaz ezarritako betekizuna bete ez. Betekizun hori Beregaintasun Pertsonala Sustatzeko eta Mendekotasun Egoeran bizi diren Pertsonei Laguntzeko Legeko 5.1.c) artikuluan ezarri da; artikulua bat dator Legeak eskaintzen dituen zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak zenbateraino babestu zehazteko irizpideei buruzko ekainaren 8ko 727/2007 Errege Dekretuarekin.

2. Aurreko baldintza guztiak bete arren Espainiako nazionalitatea ez duten pertsonek ondokoetan xedatutakoa bete behar dute: Espainian dauden atzerritarren eskubideei eta betebeharrei buruzko eta horiek gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa; nazioarteko itunak; sorburu herrialdearekin sinatutako hitzarmenak. Espainiako nazionalitaterik ez duten adingabeen kasuan, adingabeei buruzko indarreko legeek, nola estatukoek hala autonomia erkidegoetakoek, eta nazioarteko itunetan xedatutakoa hartu beharko da kontuan.

6. artikulua. Etxebizitza komunitarioen betekizunak

Araudi honetan araututako laguntza ekonomikoen onuradun izan daitezkeen pertsonak hartzen dituzten etxebizitza komunitarioek ondokoak bete behar dituzte:

2. Esta prestación económica es compatible con la inclusión de la persona beneficiaria en el programa de reasignación de recursos de cualquier servicio de competencia foral.

Artículo 4. Colaboración entre Administraciones Públicas

El Departamento de Política Social y Servicios Sociales de la Diputación Foral de Alava ejercerá sus competencias en esta materia de forma coordinada con las demás Administraciones Públicas competentes en materia de servicios sociales y cooperando con las mismas.

Artículo 5. Personas beneficiarias

1. Podrán ser beneficiarias de las ayudas económicas reguladas en el presente Decreto foral, toda persona en situación de dependencia que a la fecha de presentación de la solicitud reúna los siguientes requisitos:

a) Residir legalmente en territorio estatal y haberlo hecho durante al menos cinco años, de los cuales dos deberán ser inmediatamente anteriores a la fecha de presentación de la solicitud.

Este requisito quedará acreditado mediante el padrón municipal de habitantes siempre que la persona solicitante tenga su domicilio en territorio estatal y resida en el mismo, así como que ostente la condición de residente.

Para quienes sean menores de 5 años, este requisito se exigirá a quienes ejerzan su guarda y custodia.

b) Haber sido valorado en alguno de los grados y niveles de conformidad con lo dispuesto en la ley 39/2006, de 14 de diciembre.

c) Encontrarse empadronada en el Territorio Histórico de Alava en el momento de presentar la solicitud de reconocimiento de la prestación.

d) Que el Programa Individual de Atención determine la idoneidad de esta prestación.

e) Reunir los requisitos propios de acceso al servicio o servicios de atención a los que se vincula la prestación.

f) Acreditar que dispone del servicio residencial o de centro de día o atención diurna en una residencia, vivienda comunitaria o centro de día que no sea de titularidad pública, y que estando ubicada en el Territorio Histórico de Alava haya recibido autorización para su funcionamiento. Las viviendas comunitarias deberán reunir los requisitos exigidos en el artículo 6 de la presente normativa.

A quienes de forma excepcional y por no disponer de plazas dentro del Territorio Histórico de Alava se les reconozca la prestación económica vinculada al servicio para acceder a Residencias en los otros territorios de la Comunidad Autónoma Vasca, tendrán limitado el derecho a esta prestación económica a un máximo de un año. Transcurrido dicho plazo se procederá a revisar la prestación de forma que si existen plazas residenciales en el Territorio Histórico de Alava deberán realizar el traslado a este Territorio. Unicamente si no existieran plazas vacantes en Alava podrá prorrogarse anualmente la prestación económica.

g) Los emigrantes retornados podrán acceder a las prestaciones de naturaleza asistencial, aun cuando no cumplan el requisito de los periodos de residencia en territorio estatal exigido en el artículo 5.1 c) de la Ley de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las Personas en Situación de Dependencia, de conformidad con el Real Decreto 727/2007, de 8 de junio, sobre criterios para determinar las intensidades de protección de los servicios y la cuantía de las prestaciones económicas de la Ley.

2. Las personas que, reuniendo los requisitos anteriores, carezcan de la nacionalidad española se regirán por lo establecido en la Ley Orgánica 4/2000, de 11 de enero, sobre derechos y libertades de los extranjeros en España y su integración social, en los tratados internacionales y en los convenios que se establezcan con el país de origen. Para los menores que carezcan de la nacionalidad española se estará a lo dispuesto en las Leyes del Menor vigentes, tanto en el ámbito estatal como en el autonómico, así como en los tratados internacionales.

Articulo 6. Requisitos de las Viviendas comunitarias.

Las viviendas comunitarias que acojan a personas que pueden beneficiarse de las ayudas económicas reguladas en esta Normativa deberán cumplir los siguientes requisitos:

a) Arabako Lurralde Historikoan egon behar dira.

b) Ezin dira izan jabetza publikokoak.

c) Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Sailaren baimena eduki behar dute, Euskal Autonomia Erkidegoko Adintsuentzako Egoitzetako Gizarte Zerbitzuen Baimena, Erregistroa, Homologazioa eta Ikuskaritza arautu dituen martxoaren 10eko 40/1998 Foru Dekretuan eta Hirugarren Adinekoentzako Gizarte Zerbitzuek buruzko martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuan xedatutakoarekin bat etorriz.

d) Mendekotasuna duten adineko pertsonentzako etxebizitza komunitarioaren kalifikazioa eduki behar dute, martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuko 2.b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

e) Etxebizitzan irisgarritasunari buruzko ondoko baldintza hauek bete behar dira:

- Martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuaren II. eranskineko 4. zenbakiko zehaztapen teknikoen arabera egokitutako bainugela bat edukitzea, gutxienez.

- Araudi honetan araututako laguntzak jasotzen dituzten onuradunentzako plazek martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuaren II. eranskineko 6. zenbakiko zehaztapen teknikoak bete behar dituzte.

f) Gizarte eta kultura arloko egintzak sustatzeko programa eduki behar dute, martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuaren II. eranskineko 11. zenbakiko zehaztapen teknikoetan xedatutakoaren arabera prestatua.

g) Jarduteko protokoloak eduki behar dituzte, bai eta jardun onerako eskuliburua ere (norberak egina zein bereganatua).

h) Zuzeneko arretarako langileen kopurua (EUD edo OLT eta zaintzaileak) plantillaren % 65 baino gehiago izan behar da.

Artikulu honetako e), f) eta g) idatz zatietan adierazitako betekizunak Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Erregistro eta Ikuskatzailetza Unitateak emandako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira.

7. artikulua. Prozedura bideratzea eta ebaztea

1. Administrazio espedientea Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 24ko 39/2007 Foru Dekretuak ezarritakoaren arabera izapidetuko da. Foru dekretu horren bidez Arabako Lurralde Historikoan mendekotasun egoera eta beregaintasunerako eta mendekotasun egoeran dauden pertsonei laguntzeko sistemaren zerbitzuak jasotzeko eskubidea aitortzeko prozedura arautu da.

2. Aurreko idatz zatian ezarritakoa gorabehera, eskaerarekin batera ondoko agiri hauek aurkeztu behar dira:

a) Zentro pribatuaren eta mendekotasunean dagoen pertsonaren arteko konpromisoa jasotzen duen kontratua, edo aurrekontratua. Agiri honetan ondokoak agertu behar dira gutxienez:

- Egoitzako egonaldiaren hasiera eguna.

- Egoitzan bizi denak hilero ordaindu beharreko prezioa.

- Egoitzak eman eta eskainiko dituen zerbitzuak eta jarduerak.

b) Mendekotasunean dagoen pertsonak prestazio ekonomikoa ordainduko den banku kontuaren identifikazio fitxa aurkeztu behar du. (I. eranskina)

c) Azken ekitaldian libreta arruntek, epe jakinerako kontuek, kontu korronteek, bonuek, inbertsio funtsek, zor publikoak, letrek, akzioek, obligazioek eta halakoek sortutako korritu, dibidendu eta antzekoen frogagiria eta inbertsio funtsetako aldaketena. (Azken ekitaldiko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte gertatutako aldakuntza).

d) Araudi honetan ezarritako eskakizunak betetzen direlako frogagiriak.

8. artikulua. Prestazioaren zenbatekoa zehaztea

1. Foru dekretu honetan araututako prestazio ekonomikoaren zenbatekoa urtero onartuko du eskumena daukan organoak, prestazio eskubidea ematen duten graduak eta mailak bereizita, 39/2006 Legea ezartzeko egutegiarekin bat etorriz. 2008. urterako prestazioaren gehieneko zenbatekoa hauxe izango da:

a) tener su ubicación en el Territorio Histórico de Álava.

b) no ser de titularidad pública,

c) estar autorizadas por el Departamento de Política Social y Servicios Sociales de la Diputación Foral de Álava, conforme a lo dispuesto en el Decreto 40/1998, de 10 de marzo, por el que se regula la Autorización, Registro, Homologación e Inspección de los Servicios Sociales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, y en el Decreto 41/1998, de 10 de marzo, sobre los Servicios Sociales Residenciales para la Tercera Edad,

d) tener la calificación de vivienda comunitaria para personas mayores dependientes, conforme a lo dispuesto en el artículo 2.b) del Decreto 41/1998, de 10 marzo,

e) garantizar las siguientes condiciones especiales de accesibilidad en la vivienda:

- disponer de, al menos, un baño adaptado conforme a la especificación técnica número 4 del Anexo II del Decreto 41/1998, de 10 de marzo,

- las plazas que vayan a ser ocupadas por las personas beneficiarias de las ayudas reguladas en la presente Normativa deben cumplir la especificación técnica número 6 del Anexo II del Decreto 41/1998, de 10 de marzo.

f) disponer de un programa anual de actividades y animación socio-cultural, de conformidad con lo dispuesto en la especificación técnica número 11, del anexo II, del Decreto 41/98, de 10 de marzo,

g) disponer de Protocolos de Actuación y Manual de Buenas Prácticas propio o asimilado.

h) la proporción de personal de atención directa -D.U.E. o A.T.S. y personal cuidador- deberá superar el 65% de la plantilla total.

Los requisitos señalados en los apartados e), f) y g) de este artículo se acreditarán mediante certificación expedida por la Unidad de Registro e Inspección de Servicios Sociales de la Diputación Foral de Álava.

Artículo 7. Instrucción y resolución del procedimiento

1. La tramitación del expediente administrativo se realizará conforme a lo previsto en el Decreto Foral 39/2007, del Consejo de Diputados de 24 de abril, que regula el procedimiento para el reconocimiento de la situación de dependencia, el derecho y el acceso a los servicios del Sistema para la Autonomía y Atención a la Dependencia en el Territorio Histórico de Álava.

2. Sin perjuicio de lo señalado en el apartado anterior, junto con la solicitud deberá de aportarse la siguiente documentación:

a) contrato o, en su defecto, un precontrato, que recoja el compromiso de atención entre el centro privado y la persona dependiente. En este documento deberán figurar, como mínimo, los siguientes contenidos:

- Fecha de comienzo de la estancia en el centro.

- Precio mensual que deberá abonar la persona residente.

- Relación de los servicios y actividades que se compromete a prestar el centro.

b) La persona dependiente deberá presentar Ficha identificativa de la cuenta bancaria en la que conste nº de cuenta en la que pueda efectuarse el abono de la prestación económica. (Anexo I)

c) Justificante de intereses, dividendos, etc.. de libretas ordinarias, a plazo fijo, cuentas corrientes, bonos, fondos de inversión, deuda pública, letras, acciones, obligaciones, etc. que se hayan percibido el último ejercicio y modificaciones que puedan haberse realizado en fondos de inversión. (Variación producida entre el 1 de enero y el 31 de diciembre del último ejercicio).

d) Documentación acreditativa del cumplimiento de los requisitos exigidos en esta normativa.

Artículo 8. Determinación de la cuantía de la prestación

1. La cuantía de la prestación económica regulada por el presente Decreto Foral será aprobada anualmente por el órgano competente para ello, para los grados y niveles con derecho a prestaciones, de acuerdo con el calendario de implantación de la Ley 39/2006. El importe máximo de la prestación para el año 2008 se establece en:

| GRADUA ETA MAILA | PRESTAZIO EKONOMIKOA PLAZAKO, GEHIENEZ |
|---|---|
| III. gradua, 2. maila | 811,98 € hilean |
| III. gradua, 1. maila | 608,98 € hilean |
| II. gradua, 2. maila | 450,00 € hilean |

2.- Eskaera aurkeztu aurreko 3 urteetan Arabako Lurralde Historikoan etengabe erroldatuta egon direla frogatzen dutenek (babes gehigarria edukiz gero) ondoko gehieneko zenbatekoa jasoko dute 2008. urtean:

| GRADUA ETA MAILA | PRESTAZIO EKONOMIKOA PLAZAKO, GEHIENEZ |
|---|---|
| III. gradua, 2. maila | 1.000,00 € hilean |
| III. gradua, 1. maila | 1.000,00 € hilean |
| II. gradua, 2. maila | 1.000,00 € hilean |
| II. gradua, 1. maila | 610,00 € hilean |
| I. gradua, 2. maila | 508,00 € hilean |
| I. gradua, 1. maila | 508,00 € hilean |

Babes gehigarria aplikatzeko, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ofizioz egiaztatuko du Vitoria-Gasteizko udalerrian erroldatutako pertsonek betekizun hau betetzen dutenez. Gainerako udalerrietan bizi direnen eskaeretan, betekizun hau betetzen dela frogatzeko pertsona interesdunak bizi den udalerriko udalak emandako ziurtagiria aurkeztu behar du, hain zuzen ere azken hiru urteetan etengabe bertan erroldatuta egon dela adierazten duena.

3. Edonola ere, prestazio ekonomikoaren zenbatekoa mendekotasuna duen pertsonaren familia unitatearen hileko per capita errenta edo per capita ondasuna kontuan hartuta kalkulatuko da. Balorazioa Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen indarreko prezio publikoen araudian ezarritako irizpideak aplikatuta egingo da.

4. Beregaintasun Pertsonala Sustatzeko eta Mendekotasun Egoeran bizi diren Pertsonei Laguntzeko abenduaren 14ko 39/2006 Legean ezarritako zerbitzuen babesaren intentsitatea eta prestazio ekonomikoen zenbatekoa zehazteko irizpideei buruzko ekainaren 8ko 727/2007 Errege Dekretuko 13.2. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, prestazioaren gehieneko zenbatekoari (1. idatz zatia) ondoko taulako koefiziente murriztaileak aplikatuko zaizkio:

| Hileko errenta (per capita) | Ondarea (eurotan) 120.202,42 € baino gutxiago | 120.202,43 - 150.253,03 € | 150.253,04 - 180.303,63 € | 180.303,64 - 210.354,24 € | 210.354,25 € baino gehiago |
|---|---|---|---|---|---|
| Lanbide arteko gutxieneko lansariaren % 400 baino gehiago | 0,70 | 0,65 | 0,60 | 0,55 | 0,50 |
| Lanbide arteko gutxieneko lansariaren % 300,01etik % 400era bitartean | 0,80 | 0,75 | 0,70 | 0,65 | 0,60 |
| Lanbide arteko gutxieneko ansariaren % 250,01etik % 300era bitartean | 0,90 | 0,85 | 0,80 | 0,75 | 0,70 |
| Lanbide arteko gutxieneko lansariaren % 200,01etik % 250era bitartean | 1 | 0,95 | 0,90 | 0,85 | 0,80 |
| Lanbide arteko gutxieneko lansariaren % 200 baino gutxiago | 1 | 1 | 1 | 1 | 0,90 |

5. Araudi honen ondorioetarako, familia unitatea Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ondorioetarako konputatzen dena da.

6. Aitortzen den prestazio ekonomikoa inolaz ere ez da izango zerbitzuaren benetako kostua baino gehiago.

9. artikulua. Murrizketak

Beregaintasun Pertsonala Sustatzeko eta Mendekotasun Egoeran bizi diren Pertsonei Laguntzeko abenduaren 14ko 39/2006 Legeko 31. artikuluan ezarritakoaren arabera, hizpide dugun prestaziotik antzeko izaera eta xedeko prestazio hauen zenbatekoa kenduko da:

- Erabateko ezintasun iraunkorraren pentsioaren baliaezintasun handiaren osagarria, Gizarte Segurantzari buruzko ekainaren 20ko Lege Orokorreko 139.4. artikuluan xedatutakoa (1/1994 ELD).

| GRADOS Y NIVELES | PRESTACIÓN ECONÓMICA MÁXIMA POR PLAZA |
|---|---|
| Grado III, nivel 2 | 811,98 €/mes |
| Grado III, nivel 1 | 608,98 €/mes |
| Grado II, nivel 2 | 450,00 €/mes |

2.- Para quienes acrediten su empadronamiento en el Territorio Histórico de Alava de 3 años consecutivos e inmediatamente anteriores al día de la solicitud y dentro del nivel adicional de protección, se establecen los siguientes importes máximos de prestación para el año 2008:

| GRADOS Y NIVELES | PRESTACIÓN ECONÓMICA MÁXIMA POR PLAZA |
|---|---|
| Grado III, nivel 2 | 1.000,00 €/mes |
| Grado III, nivel 1 | 1.000,00 €/mes |
| Grado II, nivel 2 | 1.000,00 €/mes |
| Grado II, nivel 1 | 610,00 €/mes |
| Grado I, nivel 2 | 508,00 €/mes |
| Grado I, nivel 1 | 508,00 €/mes |

Para la aplicación del nivel adicional de protección, el Instituto Foral de Bienestar Social comprobará de oficio el cumplimiento de este requisito en relación con las personas que estén empadronadas en el municipio de Vitoria-Gasteiz. Para quienes residan en cualquier otro municipio, este requisito será acreditado por la persona interesada mediante certificado emitido por el Ayuntamiento donde tenga su residencia, en el que conste el empadronamiento previo de tres años y de forma continuada.

3. En cada caso, el importe de la prestación económica que corresponda se calculará teniendo en cuenta la renta mensual per cápita y el patrimonio per cápita de la unidad familiar de la persona dependiente. La valoración se realizará aplicando los criterios definidos en la Normativa de Precios Públicos del Instituto Foral de Bienestar Social que en cada momento esté en vigor.

4. Conforme a lo dispuesto en el artículo 13.2 del Real Decreto 727/2007, de 8 de junio, sobre criterios para determinar las intensidades de protección de los servicios y la cuantía de las prestaciones económicas de la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de promoción de la autonomía personal y atención a las personas en situación de dependencia, se aplicarán al importe máximo de la prestación, establecido en el apartado 1, los coeficientes reductores que se indican en el cuadro siguiente:

| Renta per capita mensual | Patrimonio (en euros) Inferior a 120.202,42 € | De 120.202,43 a 150.253,03 € | De 150.253,04 a 180.303,63 € | De 180.303,64 a 210.354,24 € | Más de 210.354,25 € |
|---|---|---|---|---|---|
| Superior al 400% SMI. | 0,70 | 0,65 | 0,60 | 0,55 | 0,50 |
| De 300,01% a 400% SMI. | 0,80 | 0,75 | 0,70 | 0,65 | 0,60 |
| De 250,01 a 300 % SMI. | 0,90 | 0,85 | 0,80 | 0,75 | 0,70 |
| De 200,01 a 250% SMI. | 1 | 0,95 | 0,90 | 0,85 | 0,80 |
| Inferior al 200% SMI. | 1 | 1 | 1 | 1 | 0,90 |

5. A los efectos de la presente Normativa, se entiende por unidad familiar la computable a efectos del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

6. En ningún caso la prestación económica reconocida tendrá una cuantía superior al coste real del servicio.

Artículo 9. Deducciones

De acuerdo con lo previsto en el artículo 31 de la ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las Personas en situación de dependencia, se deducirán en su cuantía las siguientes prestaciones de análoga naturaleza y finalidad:

- El complemento de gran invalidez de la pensión de incapacidad permanente absoluta, regulado en el artículo 139.4, de la Ley General de la Seguridad Social, R.D.L. 1/1994, de 20 de junio.

- % 75eko urritasuna edo handiagoa daukan 18 urtetik gorako seme edo alaba bakoitzagatiko osagarria, ekainaren 20ko 1/1994 ELDko 182 bis.2c artikuluan ezarritakoa.

- Kotizaziorik gabeko baliazintasun pentsioaren besteren laguntza behar izateagatiko osagarria, ekainaren 20ko 1/1994 ELDko 145.6. artikuluan ezarritakoa.

- Besteren laguntza behar izateagatiko sorospena, Elbarriak Gizarteratzeari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legeko (LISMI) 12.2.c artikuluan ezarritakoa.

10. artikulua. Zentro aldaketa

Pertsona onuradunak egoitza, egunerako arreta zentroa edo eguneko zentroa aldatu nahi badu, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari eskatu behar dio prestazio ekonomikoa ematen jarraitzeko. Horretarako, eskaerarekin batera zentro berriarekin sinatutako kontratu, edo aurrekontratu, berria aurkeztu behar du.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Zuzendaritza-Gerentziak 30 egun pasatu baino lehen ebatziko du eskaera.

11. artikulua. Ordainketa: noiz eta nola

1. Prestazio ekonomikoa hilero ordainduko da; urtean 12 hileko ordainduko dira. Prestazioaren aitorpenak atzera-eragina edukiko du prestazioaren xede den zerbitzua jasotzen hasten den hiletik, foru dekretu honetan ezarritako betekizunekin; inolaz ere ez du edukiko ondorerik mendekotasunaren balorazioa eskatu den hilaren aurretik.

Aurreko puntuan xedatutakoa gorabehera, egoitzako, eguneko arreta zentroko edo eguneko zentroko egonaldiko lehen edo azken eguna ez bada hileko lehen edo azken eguna, prestazioaren zenbatekoa pertsona onuraduna egoitzako, eguneko arreta zentroko edo eguneko zentroko benetan egon den egunen arabera kalkulatuko da; honen ondoreetarako hil guztiak hogeita hamar egunekoak izango dira.

Prestazioa banku transferentzia bidez ordainduko da onuradunak adierazten duen kontuan (bera izan behar da titularra), I. eranskineko “Hirugarrenen fitxa” bete ondoren.

2. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak prestazioa onuradunari gabe beste pertsona edo erakunde bati ordaintzea erabaki dezake; aurretik haren baimena jaso beharko du (II. eranskina). Hala gertatuz gero, prestazioa jasotzen duen pertsonak edo erakundeak konpromisoa hartu behar du, idatziz, Foru Administrazioari heriotzagatik, zentro aldaketagatik edo beste zernahigatik gertatzen diren baja eta aldaketa guztien berri emateko (III. eranskina).

12. artikulua. Onuradunen betebeharrak

Onuradunek betebehar hauek dituzte:

1. Prestazio ekonomikoaren zenbatekoa beraren xederako ez beste ezertarako erabiltzea.

